



Endika Abril txapelketatik esku hutsik, baina gustura

VILLABONA ▶ Behar-Zana errebote taldeak 13-2 galdu du finalean Luzeaz Gazte taldearen aurka

FINALA ▶ Azken hogeitertan finalera iritsi diren lehen aldia da, eta «pozik» daude hori lortuta ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

VI. Munduko Pilota Txapelketan lehian

Bost pilotari eta epaile bat Txilen dira ▶ 7

Kantua eta irria nagusi Txintxarri Eguneko ospakizunetan

ALEGIA ▶ Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen 45. urteurrena ere ospatu zuten igandean, emanaldi eta bazkariarekin ▶ 5



Ekarpenak egiten, atzo. I. GARCIA

VILLABONA ▶

Eskualdekoen ekarpenak ere jaso ditu Kaierak

Pertsona guztien eskubide zibil eta politikoen alde egitea du helburu 18/98+ lan taldearen ekimenak ▶ 7


EDUARDO ARRAIET



TOLOSA ▶

Bertsozale Elkarteak eta Arretxe enpresak, hitzarmena Udalarekin

Ikastetxean bertsolaritza eta enpresan euskararen erabilera sustatzea, xede ▶ 3



Ezker-eskuin: Lasa, Bildarratz eta Irazustabarrena. N. LATABURU

TOLOSA ▶

'Bide eginez' prozesuari ekin dio Batasunak

Tolosako Herri Biltokiari agurra ▶ 3

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen Ohorezko Maila.

Majadahonda-Hegoalde Tolosa 6-4
Saillkapena ▶

- Navalcarnero 15 puntu
- UCAM Murcia 13 puntu
- Mostoles 12 puntu
- Fuenlabrada 11 puntu
- Gironella 10 puntu
- Femesala Elche 8 puntu
- Teldeportivo 8 puntu
- Zaragoza 2002 7 puntu
- Hegoalde Tolosa 7 puntu**
- Arturo Eyres 7 puntu
- Majadahonda 6 puntu
- Cordoba 4 puntu
- Rioja Diamante 3 puntu
- Soto del Real 3 puntu
- Valencia 0 puntu
- Ourense 0 puntu

Nazional Maila A.

Ibarra-Ultzama 2-1
Saillkapena ▶

- Xota 13 puntu
- Arnedo 12 puntu
- Logroño 12 puntu
- Soloarte 10 puntu
- UPV-EHU 9 puntu
- Ultzama 9 puntu
- Sestao 9 puntu
- Ibarra 9 puntu**
- Atenea 6 puntu
- Gazte Berriak 5 puntu
- D. Cerverano 3 puntu
- Carniceria Saenz 3 puntu
- Jarrileros 1 puntu
- Muriedas Urrutia 1 puntu
- Sasikoa 0 puntu

Lehenengo Maila.

T. Lakunza-Zarautz 5-3

FUTBOLA

Hirugarren Maila.

Gebo-Tolosa 0-3
Saillkapena ▶

- Sestao 20 puntu
- Arenas 16 puntu
- Tolosa 15 puntu**
- Gernika 15 puntu
- Laudio Sall. 15 puntu
- Baskonia 14 puntu
- Beasain 14 puntu
- Eibar 13 puntu
- UPV-EHU 13 puntu
- San Pedro 13 puntu
- Elgoibar 12 puntu
- Zamudio 12 puntu
- Rioja Onak 11 puntu
- Amorebieta 10 puntu
- Aurrera Vitoria 10 puntu
- Santurtzi 10 puntu
- Indautxu 8 puntu
- Aurrera O. 7 puntu
- Gebo 5 puntu
- Salvaterra 3 puntu

Lurraldeko 1. Maila.

Danena-Intxaurrondo Danak 3-2
Saillkapena ▶

- Martutene 18 puntu
- Oiartzun 15 puntu
- Euskalduna 15 puntu
- Dunboa-Eguzki 12 puntu
- Behobia 11 puntu
- Beti Ona 8 puntu
- Roteta 8 puntu
- Gure Txokoa 7 puntu
- Usurbil 7 puntu
- Hondarrabia 7 puntu
- Intxaurrondo Danak 7 puntu
- Lengokoak 6 puntu
- Danena 4 puntu**

14. Ostadar 3 puntu
15. Mariño 3 puntu
16. Urnieta 2 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Axular Limp. Galaxia-Tolosa B 0-1
Intxurre-La Salle 1-0
Amaroz-Munibe 1-2
Saillkapena ▶

- La Salle 13 puntu
- Tolosa B 12 puntu**
- Ordizia B 11 puntu
- Munibe 11 puntu
- Inburre 11 puntu**
- Amaroz 7 puntu**
- Lasarte Oriá Texas 7 puntu
- Axular Limp. Galaxia 5 puntu
- Lazkao 1 puntu

Jubenilen 1. Maila.

Kostikas M. Bihotza-Billabona 5-1
Intxurre-Segura 6-1
Saillkapena ▶

- Kostikas M. Bihotza 21 puntu
- Beasain 21 puntu
- Hernani 19 puntu
- Idiazabal 18 puntu
- Beti Gazte 16 puntu
- Lengokoak 15 puntu
- Dunboa Eguzki-Real Union 12 puntu
- Allerru 10 puntu
- Aldapetarrak 10 puntu
- Ekintza 10 puntu
- Tolosa CF 5 puntu**
- Amara Berri 4 puntu
- Trinberpe-Azkuene 4 puntu
- Billabona 4 puntu
- Urnieta 3 puntu
- Añorga 3 puntu
- S. Tomas Lizoea 1 puntu
- Behobia 1 puntu

1. Amaiak Bat 18 puntu
2. Zestoa 16 puntu
3. Lasarte Oriá Texas 15 puntu
4. Euskalduna 13 puntu
5. Oiartzun 12 puntu
6. San Ignacio 11 puntu
7. Orioko 11 puntu
8. Burumendi 10 puntu
9. Antonioan 10 puntu
10. Eibartarrak B 10 puntu
11. Aretabaleta B 7 puntu
12. Ilinba 7 puntu
13. Union Txiki B 7 puntu
14. Bergara B 7 puntu
15. **Inburre 6 puntu**

Kadeteen Ohorezko Maila.

Lagun Onak-Tolosa CF 0-2
Saillkapena ▶

- Lengokoak 18 puntu
- Añorga 16 puntu
- Beasain 16 puntu
- Tolosa CF 13 puntu**
- Real Sociedad B 13 puntu
- Ordizia 12 puntu
- Hernani 10 puntu
- Eibar 8 puntu
- Antiguoko B 7 puntu
- Aloña Mendi 6 puntu
- Vasconia 4 puntu
- Lagun Onak 4 puntu
- Bergara 4 puntu
- San Ignacio 4 puntu

Kadeteen 1. Maila.

Tolosa B-Añorga B 1-0

Kadeteen 2. Maila.

Billabona-Amaroz 6-0
San Ignacio B-Inburre 1-4

Emakumezkoen Liga.

Tolosa CF-Urnieta 3-0
Saillkapena ▶

- Añorga B 24 puntu
- Tolosa CF 18 puntu**
- Vasconia 16 puntu
- Amara Berri 12 puntu
- Luberri 8 puntu
- Usurbil 6 puntu
- Groseko 6 puntu
- Urnieta 4 puntu
- Euskalduna 0 puntu

FUTBOL Z

1. Maila A.

Ibarrako GA-Zibbo dance club 2-4
Continental Industrias-La Kabutzia 2-5
Saillkapena ▶

- La Kabutzia 16 puntu
- Zuma GH 12 puntu
- Bataplan 11 puntu
- Sariketa 11 puntu
- Jalgi kafe antzokia 10 puntu
- Knauf-Decoracion Nuñez 9 puntu
- Easo Motor 9 puntu
- Continental Industrias 8 puntu**
- Ibarrako Gazte Asanblada 7 puntu**
- Kroms 7 puntu
- Zibbo dance club 7 puntu
- B. Ignacio-Hondarrabia 5 puntu
- Euskalduna-San Miguel 4 puntu
- Pub Oasis 3 puntu
- Emengo artekaritza 1 puntu

PILOTA

GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO

TXAPELKETA.

Kadeteak.

Aurrera-Saiaz-Murumendi 20-22
(Marrin de la Sotilla-Julen Ebeberria)

Aurrera-Saiaz-Ataun 16-22
(Mikel Lasas-Luis Angel Zubiri)

Jubenilak.

Aurrera-Saiaz-Urnieta 22-7
(Aritz Mujika)

Aurrera-Saiaz-Zazpi Iturri 1 22-8
(Xabier Tellebea-Koldo Galarraga)

Eibar-Aurrera-Saiaz 16-22
(Aritz Irazusta-Iñaki Errazkin)

Seniorrak.

Añorga-Aurrera-Saiaz 11-22
(Joseba Senperena)

Añorga 2-Aurrera-Saiaz 12-22
(Ugaitz Renobales-Jabi Oteiza)

Aurrera-Saiaz 1-Andazpe 22-8
(Unai Aspe-Ruben Zapirain)

Aurrera-Saiaz 2-Zazpi Iturri 22-17
(Mikel Olaebea-Iker Huarte)

Tartaloeba-Aurrera-Saiaz 1 8-22
(Axier Tellebea-Ion Orbeago)

SASKIBALOA

Maila Interautonomikoa.

Tolosa Aralar-Leihoak Zarautz 74-53
Saillkapena ▶

1. Santurtzi

2. JF Ceramicas

3. Tolosa Aralar

4. Gernika

5. Ventanas Leon

6. Ibaizabal

7. UPV Alava

8. Asti Leku

9. Leioa Artea

10. Salleko

11. Leioak Zarautz

Kadeteak.

Andritz-Tolosa Argysan 45-71

Infantilak.

Tolosa Argysan B-Tolosa Argysan A 7-70

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

IRATXE ETXEBESTE

Partidua hain eskura izan, eta azkenean batere punturik gabe itzuli behar etxera. Hegoalde ez du asmatu asteburuko bere neurketari eusten. «Eta larunbatekoak aitzakia gutxi du», esan dute taldeko ordezkariak: «Gaizki jokatu da, beraz, punturik ez lortzea da zigorra». Edo beste irakurketa bat eginda: «Hegoaldeko ondo jokatu du, serio eta behar zena eginez, eta norgehiagokan sartuta egon da lehen hiru laurdenetan, baina azken laurdenean ordura arteko lan guztia bertan behera geratu da».

Errua ez zen, ordea, alde bakarrekoa izan. «Etxekoie ere berea eman behar zaie, izan ere. «Taldea anarkikoa da oso, futbol nagusian ohitutako jokalariek dira eta haiengandik

Eskutik ihes egin diote puntuek Hegoalderi

Majadahonda taldearen kontrako neurketan ez zuten jakin behar bezala jokatzeko, eta 6 eta 4 galdu zuten azkenean

edozer espero liteke: batzuetan gainbehera egin eta sekulako gol sortaz gal dezakete; baina, besteetan, teknikaren falta indarrez beteta garaiaren sonatuak lortzeko gai dira». Halaxe zioen, behintzat, Mikel Larreak partidua hasi aurretik. Eta horixe izan zen, hain zuzen ere, larunbatean gertatu zena. Majadahondak indarra eta adorea azalarazi zituen partiduko azken laurdenetan,

eta harmailetan zeuden zale-tuek bultzatuta, Hegoalde gainditi zuten. Areto futbolerako teknika gutxi, baina eraginkortasun handia du Majadahondako neskek, «Joa izenekoak, batez ere, 4 gol sartu ditu eta». Zahazki 31. minutuan hasi eta 38.era arte bost gol sartzea lortu zuten etxeok. Bost baloi Idoia Manriqueren atera aitarren batean. Zazpi minututan. Eta halaxe eman zioten buelta

markagailuari. Bien bitartean, harri eta zur ziren Hegoaldekoak. Ildo horretatik, larunbateko partiduaeren ostean zioten hartatik ezer baikorrik ateratzea «zaila» zela. Kontuak kontu, Vicky Delgadoren *hat-trick*-a aziparratzeakoa da; lau gol daramatza ligan, eta taldeko pitxitxia da jokalaririk donostiarra horrenbeste. Hura ez zuten, ordea, entrenatzaileek hasierako bosteko

an sartu. Idoia Manrique atezainarekin batera, Isa Barrio, Maider Lopez, Ane Larrañaga eta Emi Ugarte izan ziren neurketa hasieran kantxara irten zutenak. Hegoalderen lana osatzen aritu ziren, dena dela, beste hauek ere: Vicky Delgado bera, Amaia Azpilikueta, Naiara Mayo, Sarah Ugarte eta Ana Berziano. Mikel Larrea eta Ruben Salvador entrenatzaileen aginduetara jardun zuten guztien artean lau gol sartzea lortu zuten: Ana Berzianok egin zuen lehena 10. minutuan, eta Vicky Delgadok azken hirurak 11., 30. eta 39. minutuetan. Ikasgai bezala hartu behar omen duela porrot hori Hegoaldeko neskek. Aurrera begirako lezio gisa. Oraindik «egiten» ari den taldearentzako eskarmentu modura.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GIZARTEA ▶

Bertsozale Elkartek eta Arretxe S.A.k, bi hitzarmen Udalarekin

Lehen Hezkuntza bertsolaritza egitasmo bat burutzea eta euskararen erabilera lan munduan sustatzea dute helburu



Ezker-eskuin: Lasa, Bildarratz eta Amondarain. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Tolosako Udalak bi hitzarmen sinatu berri ditu: batetik, Arretxe S.A. enpresarekin eta, bestetik, Gipuzkoako Bertsozale Elkartarekin. Atzo goizean burutu zuten sinaketa ekitaldia, eta bertan izan ziren Jokin Bildarratz eta Onintza Lasa udal ordezkariak, Arretxe enpresako Jose Ignacio Amondarain eta Bertsozale Elkarteko Felix Irazustabarrena.

Lehendabizko hitzarmenak euskararen erabilera lan munduan sustatzea izango du jomuga, «Bai Euskarari Akordioaren konpromisoak betetzeko eta Euskara Biziberritzeko Plan

Nagusien helburuak ere bete daitezten». Onintza Lasa Euskara eta Hezkuntza zinegotziak azaldu zuenez, «Arretxe enpresak euskararen alde hartu duen jarrera eredu-garria da beste enpresentzat». Hitzarmena 2005eko amaierara bitarte egongo da indarrean, eta proiektuak hainbat fase izango ditu: lehenik eta behin, aurreazterketa egingo da, euskararen egoera ezagutu eta planaren diseinu egokia egin ahal izateko. Ondoren, eta Bai Euskarari Akordioaren bidez hartutako konpromisoak betetzen saiatuz, egindako plana martxan jartzea izango litzateke hurrengo pausoa.

Bigarren hitzarmena Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen eskutik etorri zen, ordezkari lanetan Felix Irazustabarrena egon zelarik. Hitzarmena Tolosako Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeetan —Hirukide, Lasakorain eta Samaniego— ahoz-kotasuna eta bertsolaritza egitasmoa lankidetzaz burutzea datza. «Bertsolaritzak eskaintzen dituen aberastasun linguistikoak ezagutzeaz gain, erabiltzeko gaitasuna lortzea» du helburu, bai eta egoera komunikatiboaren arabera koherentzia jokatzeko jakitea ere. Honekin batera, hizkuntzaren erregistro informal ludikoez eta honek dituen baliabide estetikoaz jabetzea eta memori-zaziorako gaitasuna jorratzea. Hiru eduki multzo dira, «modu global batean» lantzeko: bertsogintza komunikaziorako tresna, bertsoaren osagaiak eta ezaugarriak eta ahozko tradizioaren eta bertsolaritzaren bilakaera. Bertsozale elkartek «proiektuaren garapenarekin» jarraitzeko konpromisoa bereganatu du; Udalak, berriz, 16.000 euro emango dizkio elkarteari ikasturte amaierako hiru bertso jaialdiak antolatu ahal izateko, besteak beste.

POLITIKA ▶

Herri Biltokiari agurra eman dio Batasunak

'Bide eginez' prozesua hasi dute; azaroaren 12an egingo dute lehen batzarra



Urriaren 7an, Herri Biltokiari eginiko agur ekitaldian. HITZA

N. LATABURU

Batasuna prozesua burutu eta lau urte iragan diren honetan, *Bide eginez* barne eztabaida prozesua martxan jarri da Euskal Herrian. Prozesu berri honetan sartzearrekin batera, hainbeste urtetan egoitza izan duten Herri Biltokiari agur xumea eman zioten urriaren 7an eginiko ekitaldian. Izan ere, hemendik hilabete gutxira Herri Biltokia kokaturik dagoen eraikina bota egingo dute.

Bertara bildutakoak urte hauetan Herri Biltokian emandako hainbat pasarte gogoratu zituzten, «emozio bereziarekin»; besteak beste, «hasierako baldintza kaskarrak, telefonorik gabeko urte haiek, Garzonen aginduz Biltokia is-teko mehatxua zela-eta gauze ere guardiak egin genituene-

koa, hainbeste egitasmo aurrrera ateratzeko ahaleginak, ilusioak, amorrazioak eta amets berriak».

Batasunak *Bide eginez* prozesu berriari hasiera ematen dion momentuan egokitu da Biltokiari agurra ematea. Honek, urriaren 7ko ekitaldiarekin prozesuaren lehen urratsa eman zuten Tolosan.

Datozen hilabetetan gauzatuko duten prozesu honetan, herriz herri batzarrek antolatuko dituzten. Tolosan, hain zuzen ere, azaroaren 12an izango da lehenengo batzarra. Batzar hauetan «ahalik eta jende gehien etortzea» bilatzen dute. «guztion iritzia lekua izan dezaten». Garrantzi berezia eman diete hitzordu hauei, beraz, eta hori dela eta, larunbatero antolatzeko erabakia hartu dute.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: enria@inmoenria.com
www.inmoenria.com

Larraul. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. Zoragarria!

Aitzo. Etxe bifamiliarr ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak dituen.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ikaztegieta. Etxe abikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratz eta txabolarekin. 204.345 euro.

Tolosa. Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzen jartzeko moduan. 237.400 euro.

Tolosa. San Esteban Auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berriua.

Tolosa. Zuberua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen

etxebizitza polita salgai. Erabat berriua. Igogailuarekin eta berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro z auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin. Guztiz berriua. Trastelekuarekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Larramendi. 96 m². 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berrieko igogailuarekin.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berriutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta tokoa.

Tolosa. Geltokialdea, eraikuntza berrian, garaje ibxia alokairuan.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearrekin. Oso egoera onean.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta 2 bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Erdialdean. Guztiz berriua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 306.517 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126 m²-ko etxebizitza berriua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean! 4 logelako etxebizitza ederra, garajearrekin salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Villabona. Etxeondo. Pisu garajearrekin. Pisu, 3 logela eta 2 bainugelarekin.

Villabona. Eraikuntza berria 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea aukeran.

Villabona. Kale Berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Erabat berriua. Berokuntzarekin.

Villabona. Etxeondo, pisua garajearrekin. Pisu 3 logela eta 2 bainugelarekin.

Villabona. Kale Berria. 30 m²-ko garaje ibxia salmantan.

VILLABONA ▶ ERREBOTEA

Ez da posible izan

Behar-Zana errebote taldeak 13 eta 2 galdu zuen Oiartzunen jokaturako Endika Abril Txapelketako finala

IMANOL GARCIA

Ezinezkoa izan zen. Behar-Zana elkarteko errebote taldekoek ezin izan zuten garaipenarekin itzuli igandeko partidatik. Endika Abril Txapelketako finala jokatzeko zuten Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldearen aurka, eta gauzak ez ziren nahi bezala joan. «Hasieran urduri-edo hasi ginen eta ez genuen aprobetxatu jokoak lortzeko izandako aukera», azaldu dio HITZARI Igor Alejo jokalaria billabonatarrek. «40ra iritsi eta azkeneko tantorekin faltan gelditzen ginena».

Zazpi eta hutseko abantaila hartu zuten Iparraldekoek. Bi tanto egin zituzten ondoren billabonatarrek, baina jarraian aurkariak hasi ziren jokoak egiten eta, azkenean, 13 eta 2 amaitu zen partida. «Askok hobeto moldatu ziren bai plazara eta bai jokoari berari ere», dio Alejo. «Guk tanto gehiago egitea bageneukan eta 13 eta 7-edo amaitu, baina ez zen posible izan. Beraiek merezi zuten irabaztea».

Finala ezin izan badute irabazi ere, gustura daude Behar-Zanakoak egindako txapelketarekin. Azken hogei urtetan ez

dira Endika Abril Txapelketaren finalera heldu eta aurten hori lortzea ez da gutxi. «Esaten den bezala: finala galtzeko ere iritsi egin behar da finalera», zehaztu du Alejo. Txapelketan Iparraldeko eta Hegoaldeko taldeek jokatzeko dute, eta maila handikoa izaten da.

Babesa jokalariei

Jende asko joan zen partidara, baita Villabonatik ere. Oiartzungo frontoi berrian 700 bat lagun sartzen dira harmailetan, eta ia guztia beteta zegoen. «Askok eskertzen dugu jendearen babesa. Azken 15 urtetan ez da hainbeste ikusle izan Endika Abril Txapelketan. Villabonan ikusmina sortu du partidak, eta jende asko joan zen Oiartzunera. Beste partidetan ere jendea inguratzea gusatuko litzaioguke», dio Alejo.

Herrian izandako oihartzunak afizioa bultzatuko duen esperantza du Igor Alejo: «Ez dago errebotean hasi nahi duen gazterik, eta hori etorkizunera begira oso txarra da. Orain Oiartzunen beste talde bat osatu da, eta frontoia dago errebotean jolasteko. Ea horrek ere mugiarazten dituen

JOKOA

Behar-Zanako jokalariek joko gehiago lortzeko aukerak ez zituzten aprobetxatu

LORPENA

Finala ez irabazi arren, gustura daude jokari billabonatarrek Endika Abril Txapelketan egindakoarekin

ETORKIZUNA

Geroa nahiko iluna du erreboteak Villabonan, belaunaldi berriak ez baitira inguratzen kirol horretara

BEHAR-ZANA ▶ 2

LUZEAZ GAZTE ▶ 13

Behar-Zana elkarteko jokalariek: Igor Alejo, Jon Alejo, Sergio Sanchez, Eneko Gorostidi, Xabier Ayerza.

beste herri batzuk ere kirol hau praktikatzen». Oraingoz, behintzat, etorkizun ilun samarra du kirol honek, Alejo azaldu bezala, beharrezkoa baitira belaunaldi berrien parte-hartzea erreboteak iraun dezan.

Joko garbi

Behar-Zanako jokalariek ez dute errebotean jokaturako datoren maiztasun ingurura arte, euriak hainbesteko kaltea eragiten ez duen sasoiaren. Baina bien bitartean joko garbiant ariko dira, frontoi arruntan, hau da, bi partekoan.

Sergio Sanchez eta Jon Alejo lehenengo mailako Euskal Herriko Txapelketa jokatzeko ari



Luzeaz Gaztekoak eta Behar-Zanakoak —azpian—, garaikurrekin. HITZA



Behar-Zanako bi jokari partidaren une batean. HITZA



Oiartzungo frontoi berrian jokatu zuten finala. HITZA

dira. Ligaxkan lehiatzen ari dira, eta orain arte bi partida irabazi eta beste bi galdu dituzte. Igor Alejo eta Xabier Mitxelena, berriz, bigarren mailako Euskal Herriko Txapelketa jokatzeko ari dira. Hauek ere ligaxka jokatzeko ari dira, eta orain arte hiru partida irabazi eta bat galdu dute. Azaroan hasiko dira final-laurdenak lehen mailakoan eta final-zortzirekin bigarren mailakoan. Joko garbi ere saskiarekin jokatzeko dute, eta pilotak errebotekoak baino bote handiagoa du.

OSTALARITZA GIDA 2006



Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
 - Erretegiak
 - Pintxo tabernak
 - Sagardotegiak
- bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabal

Iragarkiak kontratatzeko:
943 304 333
publi@iragarri.net

Goierri

hitza

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?



Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, kateak, dendak, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!
902 430026



Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

ALEGIA ▶ ABESBATZA

45. urteurren biribila

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak 45 urte daramatza kantuan eta egun handia ospatu zuen igandean

MARTA SAN SEBASTIAN

Kantuan ospatu zuten Txintxarri Abesbatzekoek euren egun handia. Alegiako Joan Batailatzaile Deunaren eliza jendez betetzea lortu zuten. Elizkoiez gain, kantuzaleak ere izan zituzten ikus-entzule. Txintxarri Eguna-ospatu zuten eta, gainera, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak 45 urte bete ditu. Eliza beterik ikustea baina opari hobea gorik ez zuten izan ziurrenik.

«Erakargarria», «zirrara-garria». Hauexek izan ziren bertaratutakoen ahotatik entzun zitezkeen hitzak. Emanaldia gustatu zitzaizen seinale, noski. Lehenengo, Meza Nagusian abestu zuten Txintxarri abesbatzekoek Mariaje Rekondo alegiarra organoan zutela. Meza Txintxarri abesbatzean urteetan kantari izandako hildakoen alde egin zuten. Bertan, Pascual Barturenen euskal mezatik hasiera eta bukaerako kantak abestu zituzten. Honez gain, Kaxianoren euskarazko mezaren pieza batzuk ere kantatu zituzten. Duela gutxi soinujole lizartzarren omenezko mezan izan ziren Txintxarri Abesbatzekoak, eta horrek hungigarriagoa egin zuen emanaldia.

Txintxarri Txikikoen txanda izan zen ondoren, Idoia Iraolaren gobernupean. Euskaraz, katalanez eta ingelesez maisutasunez aritu ziren gaztetxoak. Gazteetako batek pianoz

ere lagundu zituen bere adiskideak, eta ederki abestu zituzten *Le canço de les bananes*, *Aldapeko*, *Txarmangarri* eta, azkenik, *Titanic* filmeko kanta ezaguna. Azken honekin zirra berezia eragin zuten ikus-entzuleengan. Katalanez ari zitezkeen ere arrazoi bat bazuen. Apirilean haur eta gazteak Kataluniako Begues herrian izan ziren ikasle-trukean bertako abesbatza batekin. Katalanezko abestia hori bertan abesteko prestatu zuten, eta Txintxarri Egunean errepikatuzko unea zela pentsatu zuten. Gainera, 2006ko apirilean Beguesko kantari gazteak gurean izateko dira.

Helduen garaia iritsi zen gaztetxoaren ondoren. Hainbat euskal kantu eta habanerak izan ziren nagusi saioan. Tomas Garbizu edota Pablo Sorozabalen *Zer dugu ikusi* eta *Nahi*

zuya yin euskal kantak entzugarri izan ziren. Baina kantarean magiak Brasilera bidean ere jarri zituen bertaratutakoak *Salio de Jamaica* eta *La bella Lola* habanera ospetsuekin. Beste lurraldeetara joandako marinelen amodiozko penak kontatzen dituzten aspaldiko kantauak biak ere. Magiaz betetako bidaiak horretan berriro ere Euskal Herrira itzuliz, Benito Lertxundiren *Erribera* abestiarekin eta Javi Bustok iaz moldatutako *Porrusalda* abestiarekin, *Ixil ixilik dago* kantua osorik jasotzen duen partitura, eman zioten amaiera emanaldiari.

Eguna biribiltzeko Txintxarri Jatetxean bildu ziren 60 lagun inguru eta bertan izan zen 1960an abesbatza sortu eta 1991 bitarte zuzendu zuen Joxe Gastesi alegiarra. Kantua eta irria ez zen faltatu.



Koloretsu eta maisutasunez aritu ziren txikienak. EDUARDO ARRAIET



Gaztetxoaren ondoren, Txintxarriko helduek sei abesti kantatu zituzten. EDUARDO ARRAIET

ipuin harrigarriak

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

Ipuin harrigarriak 1
Kastillopranko
Biribil-biribilak

Ipuin harrigarriak 2
Dar-dar
Ondo eginarene ordaina

Ipuin harrigarriak 3
Gatza ala erregea
Biziak ezagutzeko hil

Ipuin harrigarriak 4
Zapatari asmatzailea
Zerraldoan bizirik

Ipuin harrigarriak 5
Ikazkina eta heriotza
Besterik ez bezalako kapela

Ipuin harrigarriak 6
Estudiante Tonto
Ezkonberriak

Ipuin harrigarriak 7
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki
Zeruko berriak

Ipuin harrigarriak 8
Pepetxu eta Popatxu
Kardulatzat salatari

ASTEBURUETAN

+ 3 €

Legiritzaileak:

Ekitaldiak leku dagan
berria

IBARRA ▶ MUSIKA



Berri Txarrak-en kontzertu arrakastatsua

Erredakzioa ▶ Ostiralean Berri Txarrak talde nafarrak *Jaio Musika.Hil* bosgarren diskoa aurkeztu zuen Ibarako Gaztetxean, eta jende ugari bildu zen ia bi ordu iraun zituen kontzertura. «Giro izugarria sortu zen; kontzertu bikaina izan zen», azaldu dute Gaztetxeok. Halaber, bertan giro berezia sortzen dela eta, beren toki «kuttuna» zela aitortu zuten nafarrek, eta kontzertu amaieran zin egin zuten hurrengo diskoa ateratzean Ibararra bueltatuko direla. IBARRAKO GAZTETXEA

TOLOSALDEA ▶ GIZARTEA



Saharako presidentearen bisitaldia

I.Terradillos ▶ Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (R.A.S.D.) presidentea, Mohamed Abdelaziz, hiru eguneko bisitaldirako etorri da Euskal Herrira, eta antolatatu diren ongietorriko ekitaldietan hainbat agintarik eta Sahararen aldeko elkarteko kideek hartu dute parte. Horien artean, Tolosaldeko joandakoak ere izan dira Saharari elkartasuna adieraztera, eta Leioako Artaza jauregian egin zioten ongietorria oso hungigarria izan zela azaldu dute. HITZA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Merezitako garaipena Ultzamaren aurka

2-1eko emaitzarekin irabazi zuten partida; ibartarrak euren beteranotasunaz baliatu ziren garaipena lortzeko

ERREDAKZIOA

Larunbatean jokatu zuen Ibarra areto futbol taldeak etxean, Belabieta kiroldegian, Ultzama taldearen aurka, eta hiru puntuak lortu zituen lan handia egin ostean. Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak

azaldu duenez, Cesar Rocaren mutikoak nagusitu ziren ia partida osoan eta, hainbat aukera izan bazituzten ere, baloia sare barruan sartzeko zailtasun ugari izan zituzten.

Nafarrak jarri ziren aurretik 2. minutuan baina, hala ere, ibartarrek ez zuten kontzentra-

zioa galdu eta partidari buelta emateko lanean jarraitu zuten. Eta gogor saiatu ziren, baina Ultzamak defentsan lan handia egin zuen eta Ibarakoek ezin izan zuten golik egin lehenengo zatian.

Bigarrenean ere, Ibarakoek izan ziren partidaren jaun eta

jabe baina, hala ere, zortea ez zuten alde izan golak egitera-koan. 28. minutuan etxeko taldeak lehenengo egitea lortu zuten; Landerrek alboko sarea atera zuen bigarren zutoinera eta Fernando Ayerzak buruz sare barrura sartu zuen baloia. 1-1ekoa zen.

Ultzamakoen urduritasuna nabaria zen honezkerok, eta Ibarra bere beteranotasunaz baliatu zen, zentzutasunez jokatu. Eta 37. minutuan aurretik jartzea lortu zuten Unai gauzaturiko golaren ondorioz, eta 2-1ekoarekin amaitu zen azkenean partida.

Aipatu partida hasi aurretik Xabier Santos jubenilaren aita gogoan izan zutela minutu bateko isilunea eginez. Halaber, jubenilek 2-5 garaitu zuten Santurtziko San Jorgeren aurkakoa, eta taldeak Xabier Santosi eskaini zion garaipena.

LIZARTZA ▶

Zauritu bat herenegun izandako istripuan

ERREDAKZIOA

Herenegun goizean, 11:00ak aldera, auto istripua gertatu zen N-130 errepidean, Lizartza inguruan, Tolosarako norabidean.

Istripuan Citroen Xsara markadun auto bat bidetik atera eta irauli egin zen, oraindik zergatia argitu gabe dagoela. Auto gidaria, J. A. G. 75 urteko laguna, ibilgailuaren barruan harrapatu geratu zen, eta bertatik ateratzea lortu zuten bezain pronto Tolosako Asuncion erietxera eraman zuten. Ezbeharren ondorioz, errepidea itxita egon zen ordubete inguruz.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Andoain. Berrituriko etxebizitza salgai. 3 logela eta sukalde

handiarekin. Oso argitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.
Ikaztegieta. Etxe atxikia lur sailarekin salgai. Egoera paregabea. 54.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Irura. Aukera paregabea! Bizitzera sartzeko moduan dagoen etxebizitza salgai 32.000.000 pezetat. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Larraul. Etxe atxikia salgai. Azkena geratzen da. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosaldea. Baserria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosaldea. Aukera ezin hobea. 100 m2 dituen etxebizitza ederra

salgai. 34 m2-ko garajearekin. Berria bezala. Etxesagasti. 943 69 68 56
Villabona. Berrikuntza. Erdialdean. 2 logela dituen etxebizitza salgai. Eraiki berria. Ezin egokiagoa. Trastelekuarekin eta garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Eraikuntza berria. 113 m2 dituen etxebizitza paregabea salgai. Trastelekuarekin.
Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarrikoko etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Tolosaldean.

iragarki laburrak ▶

LANA
Garbitzailleak. Bi neska eskaintzen dira portal, eskaratze eta abarren garbiketarako. 943 68 30 57 eta 943 68 35 70.
Peoiak. Hiru peoi behar dira obratarako. Deitu 685 72 01 18 zenbakira.

SALGAI
Lokala. Nissan Serena (1995ekoa) salgai. 1,50eko ohearekin. 3.000 euro. Deitu 658 76 89 64 zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Sartu gure web orrian eta eman iritzia gai honen inguruan: Egin berri da Tolosan Illarramendi pilotalekua dagoen eremuan eraikiko diren babestutako 44 etxebizitzaren zozketa. Nola ikusten duzu etxebizitzaren gaur egungo egoera gure eskualdean?

PILOTA ▶

Eskualdeko pilotariak Txilera doaz

Beste batzuk, berriz, bertan sariketa desberdinetan parte hartzen ari dira

JAIONE ASTIBIA

Pilotan jokatzeko hainbat modu daude, eta beste hainbeste lehiaketa modu daude,

han eta hemen. Atzo hasi zen, esate baterako, Txilen 22 urtez beheko mailan, VI. Munduko Pilota Txapelketa Trinketeian, eta han ere badira Euskal He-

rritik joandako jokalaria, bartzuk Tolosaldeketik bertatik.

Horrela, orotara, bost pilotari dira joanak. Paleta goman lehiatzen, Berastegiko Itxaso Urkizu eta Lizartzako Nagore Arozena; xarean jokatzera, berriz, Egoitz Bengoetxea billabonatarra eta Iruratik bi lagun, Urtzi Urkola eta Erik Iñurrita. Aipatzekoa da, ordea, pilotari modura ez ezik epaile lanetan aritzera ere joandakoak badi-rela, tartean Bixente Etxaniz billabonatarra, HITZAK jakin ahal izan duenez. Beraz, adi erreparatu beharko zaie etxeko kirolari hauei, dominekin itzultzen direnerako.

Baina munduaren punta honetara itzuliz, bertan ere bada

zeri begiratua, hainbat txapelketa jokatzeko ari baitira dago-neko eta, noski, hauetan ere badira gure herrietako pilotariak.

Lau t'erdiko buruz burukoan, Oinatz Bengoetxeak jokatu zuen herenegun arratsaldean berean, Imanol Agirreren aurka egin ere, eta hasieran beste-lako itxura hartu izan bazitzaion ere, azkenerako leitzarrrak lanak izan zituen final-laurdenetarako txartela eskuratzen. Izan ere, 20-10 irabazten joan arren, Agirrek azkenera arte lan eginez, gauzak oso estu jarri zizkion, eta azken unera arte zalantzan egon ziren kontuak. 22koa markagailuan ikusita, lasaitua hartu

zuen Bengoetxea VI.ak. Orain, final-laurdenetan, Xalarekin aritu beharko du, hurrengo igandean bertan, Bergaran.

Lasai eta gustura, eta bertan zeudenen gozamenerako, tanto ikusgarriak ez ezik partiduko bikaina egin zuena Olazabal izan zen, Jauregi lagun zuela, ostiral iluntzean Seguran jokatu zuten DV Torneoko kanporaketan. 22-15 irabazi zieten Gonzalez-Lopez. Galtzen hasi ziren arren, partiduko zama aresoarrak hartu zuen, akatsik egin ez bazuen ere, atzelariak eskuan arazoak baitzituen; eta, besteak beste, sei tanto egin zituen saketik.

Azaroaren 13an dute hurrengo saioa, Zegaman.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Udatzen oparoa, aurtengoa

J. Astibia ▶ Gutxi asko, hala izan ohi da beti; baina aurtengoa aparta doa, nahiz baratzetan, nahiz mendian. Begira bestela, onto-zapela horiei! Irudi honetakoa, 32 zentimetroko diametrokoa zen handiena. Horrelako dezente bilatu dituzte denboraldian zehar. J. A.

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Eskubide zibil eta politikoen inguruko iritziak

Imanol Garcia ▶ 18/98+ lan taldeak martxan jarritako Kaiera ekimena Villabonan izan zen atzo arratsaldean. Herritarrek aukera zuten ekarpenak egiteko, koaderno handi batean beren tes-

tua idazteko. Pertsona guztien eskubide zibil eta politikoen alde egitea du helburu egitasmo honek. Euskal Herri guzitik pasatu ondoren azaroaren 12an ekitaldia egingo dute, Durangon. I.G.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
 o s a g a i a k
 korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
 TOLOSA
 Tel.: 943 65 24 30

kanikak
 San Frantzisko, 21 • Tolosa
 Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
 Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
 Rondilla, 11
 TOLOSA
 Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
 Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
 Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
 OINETAKOAK
 Arostegietako kalean
 TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



Zuzendariordea. Iratxe Ebebeste. **Kudeatzailea**. Itziar Zulueta. **Publizitatea**. 661 678818. tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Villabona-Aitz.** 687 410022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta. 687 410022 anoeta@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarraldea**. 687 410032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leitzaldea**. 687 410118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alabizola, Aduna, Abotuz, Alege, Aliza, Alzo, Ametza, Anozta, Araso, Ardo, Balamán, Belantza, Berategi, Berrobi, Erdian, Herrialde, Itate, Iratxe, Laskara, Urtiza, Orendan, Orre, Tolosa, Villabona, Zizaki, besterik: Leitzaldeko Euskara Batordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 25a, astearta ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroena

19

hotzena

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Herrian bertan langabetuentzat ikastaroak doan antolatzeke aukera dago, taldeak osatzu gero. Eskaintza zabala dago, eta bailarako enpresetan lan egiteko baliagarriak dira. Izen-ematea, udaletxean.
Villabona. Salvadora paper fabrika botatzen ari direla eta, Kultur Etxea ixrita egongo da gaur eta bihar.
Zizurkil. Udaleko Euskara sailak Teodoro Hermadoreña IV. Ipuin Lehiaketaren deialdia egin du. Lanak azaroaren 28rako entregatu behar dira, udaletxean.

HITZALDIAK

Anoeta. Mikel Albarezek *AHT egitasmoaren aurkako arrazoiak eta gaur egungo egoera* hitzaldia emango du. 19:00etan, Gaztetxean.

Tolosa. Tolosako toponimiari buruzko hitzaldi-tertulia antolatuta du Euskara Batzordeak Juan Inazio Eloseggi eta Irma Goikoetxearekin, iritzi eta iradokizunak jaso eta denon artean toponimo egokienak jartzeko. Bihar, 19:30ean, udaletxeko batzar aretoan.

ZINEMA

Alegia. François Dupeyron zuzendari frantziarraren *El señor Ibrahim y las flores del Corán* filma. Bihar, 21:30ean, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Larraia M.I. Elbarren 95. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepassoa, albisteak, oharra; 11:45ean, Joxeanjel Sarasolarekin herri kirolak; 12:00etan, Aimar Irigoien harrizotasile gazteari elkarrizketa; 12:30ean, agenda; 12:45ean, Tolosako azoka, Pablo Alberdi lankidearekin; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (erreplikapena).
21:00-22:00. *Gure arbasoak*, Irulegi irratiako saioa.
22:00-23:00. *Street Noise.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Larru kontuekin barrez

TOLOSALDEA ▶ Kultur ekitaldi ugari izan da asteburuan, tartean 'Larru haizetara' antzezlanaren estreinaldia



Romeo eta Julieta euskaldunak ere igo ziren Tolosako Kultur Etxeko taula gainera ostiralean. J. SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Ordubetz bertsoak kantatu, kantak abestu, dantzatu, moztatu, antzeztu eta, batez ere, sexuaz hitz egin zuten Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek ostiralean, Tolosako Kultur Etxean.

Ez dok Hiru bikoteatroaren *Larru haizetara* emanaldiaren estreinaldiak ez zuen jende asko biltzea lortu, baina bai joan zirenak barrez lehertzea. Umorea da nagusi bi aktore



Andaluziako musika jarri zieten bertsoei bi aktoreek. J. SAIZAR

ezagunen lan berriaren ardatza. Euskal Herriko herrien errepassoa geniala da —gidogileak ondo zorrotzu du luma—. Zenbait euskal kanturen —Maritxu nora zoaz, *Lau teillatu*— desmitifikazioa, aparta. Euskaldunen arteko komunikazioaren parodia, oso lortua. Bertsoak Andaluziako musikarekin, euskaldunak ligatzen leku desberdinetan, Romeo eta Julieta euskaldunak...

Tolosaldean ez dago ezer. Hori diote askok. Ostiralean, adibidez, antzerki emanaldia zegoen Tolosako Kultur Etxean. Ordu berean, soprano kontzertua Ibarrako elizan. Gauean, berriz, blues kontzertua Tolosako Fronton kafetegian, Berri Txarrak Ibarrako Gaztetxean eta bi talde Bonberenean. Larunbatean helduentzako ipuin kontaketa Iratxo tabernan, organo kontzertua Villabonako elizan, eta skate festa, graffiti lehiaketa eta Kuraiaren kontzertua Bonberenean —kultur egitarau oparoa prestatu dute gazte hauek, badute meritua—. Igandean, Zizurkilena Azoka Berezia. Asteburu osoan jai egitarau zabala Tolosako San Esteban auzoan eta Alegian. Arrazoi dute. Ez dago ezer.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Eider Mintegi Zeberio.
 Zorionak zuri eta zure anaieri familiakoan partetik.

ZORIONAK

Amona, aitona, osaba Alain, izeba Maria eta amatoxoren partetik, 4 muxu handi.

HITZA,
zorion agurren
tartea

Urtebetetzeak,
 urrezko ezteiak,
 ezkontzak, jaioberriak...
 zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 beheka - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!